



INAUTERIEZ AUTORIK GABE GOZATZEKO AUKERA

Tolosara joan-etorria garraio publikoan egiteko aukera desberdinak daude; autobusak, trenak, taxi zerbitzua... » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

info

Igandea
2010-02-14

VIII. URTEA 1.928. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



DANBORRARIEN EGUNA

TOLOSA Hotz galanta egiten bazuen ere ehunka gaztetxo atera ziren atzokoan Haur Danborradan

HELDUAK lazko jendearen erantzuna ikusita aurten ere 19:00etan egin zuten helduek euren kalejira 4-5



Ehunka ume elkartu ziren atzo danborrak astintzeko; Geltoki kaletik irten ziren eta San Frantzisko pasealekutik barrena Triangulora joan ziren. I. TERRADILLOS

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Ondo pasa jaletani!

uno
doko

NUTRIZIO KONTSULTAK:
Asteartero eskaintzen dira 'DietaFacil' ebaxaren eskutik. Honek eraginkortasun handiko dieta lantzen du elikaduraren berrezketan oinarrituta.


farmadenda
_parafarmazia

lurre auzoa, 7 • Tolosa • Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@euskalnet.net



K Komikia

NANDO (III)



«Igandean, zezen ekitaldiaren aurretik plazari itzuli bat ematen diogu aldarrikapen gisa»

IBAI GOLBANO › Inauterizalea

Tolosa › Bonberenea txarangako kide da Ibai Golbano, eta beraiantzat Zaldunita oso egun berezia izaten da.

ESTI EZEIZA

Txaranga Inauterien ezinbesteko osagai dira. Ibai Golbanok (Tolosa, 1977) garbi du hori, are garbia go duela bost urtetik. Orduan hasi zen Bonberenea txarangarekin Inauteriak bizitzen. Egun 20-30 tolosar gaztek osatzen dute txaranga. Bera da txaranga badatorrela iragarri, musikarien aurretik, Bonberenearen banderola astintzen joaten dena.

Zer dira zuretzat Inauteriak?

Gozatzeko eta ongi pasatzeko bost egun. Dena den, nire kontu egiten dut lana eta hau jaiarekin uztartu beharra izaten dut. **Inauterietatik zer nabarmenduko zenuke?**



Txaranga badatorrela iragarri banderola astintzen du Golbanok. E. EZEIZA

Igandea. Hori baita, Bonberenea txaranga bere kabuz ateratzen den egun bakarra. Guretzat oso berezia izaten da egun hau. Izan ere, arratsaldean, zezen ekitaldiaren aurretik plazara sartzen gara, eta

plazari itzuli bat ematen diogu aldarrikapen eta protesta gisa. Festa herrikoietan sinesten dugu, eta Inauteriak ere horrela direla uste dugu, baina zenbait araukin ez dugu bat egiten.

› TRAGOXKA BATEAN

■ **Txaranga doinuak entzutean?**

Emozioa sentitzen dut.

■ **Egunik onena?**

Zaldunita.

■ **Txaranga doinu bat?**

Kaletxirri.

■ **Mozorro bat?**

Ez dakit, baina emakumez, ziur.

■ **Kalea ala taberna?**

Kalea.

■ **Gaua ala eguna?**

Erdi eta erdi.

■ **Haustrer egunean?**

Oraindik ez gara itxuraz egoten.

Zein da Bonberenea txarangaren bereizgarria?

Tolosarez eta gazteez osatuta dagoen txaranga bakarra da gurea, eta oso harro gaude horretaz. Bestalde, gainontzekoak elkarte bati lotuak daude, eta gurea ez.

Txarangarekin zabilzanetik, desberdin bizi al dituzu Inauteriak?

Bai, oso desberdin. Lehen, gazteagoa nintzenez, gaueko parrandari garrantzia handiagoa ematen nion, eta egunez gutxiago irriten nintzen. Orain berriz, alderantziz gertatzen zait.

Nolakoa da Bonberenea Txarangaren egunerokoa?

Lehen aipatu bezala, igande arratsaldean gure aldetik ateratzen gara, eta astelehenean berriz, modu ofizialean. Iluntzean hasten gara, eta goizaldera arte kaleetan ibiltzen gara.

Zer dute Tolosako Inauteriek gainontzekoek ez dutenik?

Herritarrek sortua eta herriarentzat direla.

Inauteriak igaro ondoren, txarangaren burrunbak zuen buruan jarraitzen al du?

Noski baietz, hor jarraitzen du. Gainera, guk urte guztian zehar eskaintzen ditugu emanaldiak. Diskoia ere kaleratu genuen, eta hau aurkezteko hainbat tokitan izan gara.

Inauteriei begira prestaketa berezia egiten al duzue?

Ez, ez ditugu bereziki prestatzen. Gainera, txaranga dabilen jendeak oro har, urte guztian zehar du nolabaiteko harremana musikarekin, eta ez dute prestatu beharrik Inauterietarako.

Zer izango lirateke Inauteriak txaranga doinurik gabe?

Ez lirateke posible izango, horrela musikarik gabe. Tolosako Inauterien bereizgarrietako bat da kalean egiten dela jai, eta txarangek horretarako bidea ematen dute. Beraz, txarangek gabe ez litzateke berdina izango.

Global "DAIKIN Altherma"®
Soluzioak Sistemarekin

"Dena Udalean":
- Hainbat urte
- Aste egunetan
- Urtetuz

Tovar
Sistemak eta Soluzioak
Tolosa, 1977

1977-2010
Tolosa, 1977

Marcel
ILEAPAINDEGIKO
GAIK
EDERGINTZA

Santa Klara, 9 • TOLOSA • 943 67 19 30

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa orotik, 13 ibilbide - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Autoaz ahazteko

Garraioa » Bai trenez, autobusez edo nahi izanez gero taxia hartuz, Inauterietan badago aukera Tolosara joan-etorria egiteko autorik gabe.

IMANOL GARCIA

«Tolosako Inauteriak aski ezagunak dira eta hainbat lekuetatik etortzen da jendea bisitatzeraz», azaltzen du Mario Saez taxi-gidari tolosarrak. Milaka pertsona iristen dira herrira eta, beraz, bertatik atera ere bai. Askok garraio publikoa erabiltzen dute, hau da, trenea, autobusa edo taxia. Eta hauek, festetan ibiltzen den jende uholdeari aurre egiteko, prestatu egiten dira.

Renfe 1998an hasi zen zerbitzu bereziak ematen Inauterietan. Tolosan bizi den Txema Riñon kudeaketa teknikariaren ideia izan zen. Larunbat, igande eta astelehen gaueetan jartzen dituzte. Bestalde, ohiko ordutegiko zenbait trenetan bagoi gehiago jartzen dituzte.

«Zerbitzu berezietan gehien erabiltzen direnak astelehen gauekoak dira», dio Riñonek. Egun horretan jende asko etortzen da Donostialdetik, han ez dagoelako ezer antolatuta. «Aurten larumbatean zerbitzu gutxiago emango ditugu. Orain bi urte, Udalak eskatuta, zerbitzua indartu genuen larunbatean, baina ikusi dugu ez dela hainbeste erabiltzen. Kontua da jendea dena goizaldean bueltatzen dela, zortziak inguruan».

Astelehenean, ohiko ordutegiko azken bi trenetan, Tolosara 22:43ean eta 23:15ean iristen direnak, bagoi gehiago jartzen dituzte eta denak beteta joaten dira. «Bi tren horietan 3.200 lagun inguru jaisten dira Tolosan», dio Riñonek. Aurten, Astelehenitan kontzerturik ez dagoenez, agian hainbeste jende ez dela etorriko uste du Riñonek.

Eguraldiak asko eragiten du. «Denborarekin antolatzen dugu eta ez dakigu zer gertatuko den. Eurria edo elurra egiten badu, noski, jende gutxiago etortzen da». Hotza, gainera, oztopo izan daiteke garraio honentzat ere. «Tren elektrikoekin egiten dugu lan eta elurra eta izotza ez dira guretzako lagun onak. Katenarian izotza badago kontaktu pixka bat galtzen dute trenak», dio Riñonek. Gauko zerbitzu bereziak ez dituzte festa guztietan jartzen. Egun, Tolosako Inauterietan eta Donostiako Aste Nagusian bakarrik.

Autobusean gero eta gehiago
Inauterietan zerbitzua luzatu egiten du Tolosaldea Bus enpresak ere. Ohiko zerbitzua bederatzia arte bada, jai hauetan hamarrak



Festazale askok erabiltzen du trenea Tolosako Inauterietara joateko. I. GARCIA



Autoa ordezkatzeko aukeretakoa bat autobusa da. I. GARCIA

arte luzatzen da. Gauko hamabietan hasten dira herrietarako zerbitzu bereziak, ostegun, larunbat, igande eta astelehenean. Luis Lekuona enpresako zuzendariak azaltzen duenez, «aurreko urteetako erantzuna ikusita, ostrial gauean ez jartzea erabaki da».

Bi ibilbide izaten dituzte: Tolo-

sa-Amarotz-Alegia-Ikaztegieta eta Tolosa-Amarotz-Ibarra-Berrobi-Elduainen-Berastegi. Lekuona dioenez, «oraindik autoa lehenesten da, dudarik gabe. Gaztetxoek eta helduek erabiltzen dute batez ere autobusa». Hala ere, autobusa «gero eta gehiago» erabiltzen dela azaltzen du: «Merke-

da eta gaztetatik autobusa erabiltzen duenak ohitu egiten da. Egun sagardotegietara ere gehiagotan joaten gara. Badirudi jendea kontzientziatzen ari dela».

Errespetua gidariei

Donostia-Tolosa eta Tolosa-Asteasu ibilbideak egiten dituen TSST autobus enpresak ere gauko zerbitzuak jartzen ditu. «Aspaldidantik egiten dugu hori, batez ere Astelehenita gauetan», argitzen du enpresako zuzendari Santiago Sarasolak. Orain bost bat urtetik hona, Donostia aldera bi autobus jartzen dituzte orduro gau horretan. «Bat zuzenean Donostiara joaten da eta bestea herrietatik Lasarteraino». Beste zerbitzua, Tolosatik Asteasura doana, ostegun, larunbata, igande eta astelehen gaueetan jartzen dute.

Ostegun gaukoa «nahiko ondo» ibili dela dio Sarasolak. «Guztira 240 bidaiari inguru izan dira eta autobusak ez du arazorik izan errepidean». Sarasolak gogoratzen duenez, festa garaia «zailak izaten dira gidarientzat. Edo-

zein gidarik ezin du egin zerbitzu hori. Nahiko istilu izaten ditugu». Asteburuetan jartzen dituzte gauko zerbitzuekin alderatuz, istiluen kontuetan «alde handia» dagoela dio. Horregatik eskatzen die autobusa hartzen dutenei «errespetuz jokatzeko, bai gidariekin eta bai autobusarekin ere. Beraiek festan daude, baina gidariak lanean ari dira».

Autobus berdeen enpresak eguneroko zerbitzua ez dute indartzen. «Azkeneko autobusak Lasartera edo Andoainera iritsi beharrean, Tolosara inoiz joaten direla. Besterik ez», dio Lekuonak.

Eskari handia taxietan

Inauteriak bezalako festetan, «edozein zerbitzu jarrita ere, denak gainezka egiten du», azaltzen du Mario Saez taxi-gidariak. Orain ez du gauko zerbitzurik egiten, baina lanbidean hasi zenean Inauterietan lanean aritu zen. Oste-

Astelenitan 3.200 lagun inguru jaisten dira Tolosan ohiko ordutegiko azken bi trenetan

gun Gizena, Zaldunita bezpera, Zaldunita eta Astelenita izaten dira eskari gehien jasotzen dituzten egunak. Lana erruz egiten dute. Bidaiak orokorrean gertukoak izaten dira, baina izaten dituzte leku urrunetatik etorritako jendeak ere. «Behin Adunatik deitu zidan, sagardotegi batetik, Cadizeko bikote batek. Tolosako Inauteriak ezagunak zirela eta ikustera etorri ziren». Bilbotik eta Kantabriatik etorritako bezeroak ere izan ditu Saezek, Tolosa ingurura etorri direnak Inauterietan gozatzeko. «Gustua ematen du ikustea nolako fama duten festa hauek», dio.

20 taxi-gidari daude Tolosan, baina gehienetan ez dute denak batera lan egiten. «Egoeraz aprotxatuta, inguruko herrietako taxiek zerbitzua indartzen dute», azaltzen du Saezek. Tolosaldeko ez gain, Andoainetik, Lasartetik, Beasainetik ere etortzen dira bartzuk. Ezin dira taxi geltokian egon, baina Tolosaren kanpoaldean jasotzen dituzte bezeroak. «Jende asko dagoenean eta bertako taxi-gidariak ezin dutenean eskari guztia bete, nolabaiteko laguntza ere bada beste herrietakoak etortzea», zehazten du Saezek.

MATXINA

Etxekotresna elektrikoek konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

GURUTZE
OSASUN ETA PSIKOTEKNIKO ZENTRUA

GIDATZEKO BAIMENA ARMA-LIZENTZIA...

Orduetgia:
Astelehenetik ostiralera; 9:00-13:00 / 17:00-20:00
Abuztua: Goizez bakarrik, 10:00 - 13:00

Pablo Gorosabel, 27 behea • Tel./Faxa: 943 651 425
TOLOSA (Gipuzkoa)



Inauterietako mahaia eska dezakezu!



- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Kazuejak
- Oilasko errea

Daitu:
943 248 489

Kale Nagusia 4, behea
20400 TOLOSA
Tel.: 943 57 58 33
ganbaratol@hotmail.com
www.ganbara.com



Ganbara
EUSKAL JANTZIAK

Saldias Miguel
ASSEGURAMENTO BATERATUTA
www.saldiasmiguel.com

% 60 irabazteko aukerak

Autoak • Motoak • Furgonetak • Kamioiak
Etxebizitzak • Komertzioak • Komunitateak
• Istripuak • E.P.S.V • Osasuna • Inbertsioak • etb.

Zarputrieta, 14 • 20200 Beasain • Tel.: 943 985 600
San Juan kalea, 6 • 20270 ANOETA • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidiko, 12 beheko
20400 Tolosa • Tel. 943 651 189

KLISK
ARGAZKILARITZA

• Ezkontzak • Jaunartzeak • etab.
• Errebelaketa Digitala
• Bideotik DVDrá

Tel.: 943 69 80 39 • San Frantzisko, 6 • TOLOSA

Pablo Gorosabel, 6
Tel.: 943 65 21 86
20400 TOLOSA

Dietetika eta Belardenda
ZAINBERRI

Danbor helduen eta txikien erritmora

ENERDIZ MAIZ - HINGO TERRADILLOS

Danbor dantza heldu zuten atzo-koan nagusitasuna. Hala izan ohi da Zalduneta bezperan, izan ere, goizez eta arratsaldez Haur Danborradan ehunka gazterako irten siren, eta ihurtzean helduen tondan izan zen. Hori bai, batzuek zein besteek hotzari aurre egin beharra izan zioten, kalek alaitzeko zinen ardurabar bezala betez.

Hurtzean helduen tonda

Helduen Danborrada hasi zen ondoren, eta hauen saioa ere ez zen gutxiagorako izan. Triangulon eman zioten hasiera, danborradari. Bertan jende ugari bildu zen, beraz, psoa den urtean egin zuten ordutegi aldiaketak harrera ona izan duela dirudi.

toki kaleak abiatuta, Triangulora iritsi ziren, Santamiago, Laskorain eta Hiru kalek elkarrekin elkar elkarrekin, eta euren batera, iragan larunbatean Aiz-Orratz elkarteak jaiak izan zituen izan zuten haurrak zeramatzan karroa. Ikusizun dotorea eskaini zuten gazterio guztiak batera.

Danborrak ederki astindu zituzten, eta dantza ere ederki egin zuten ehunka parte-hartzailek. Gauetan, ohi bezala, txarangek jarri zuten kalean musika.

Javier Otxoa gogoan

Urtean Jai Batzordeko laguntzaile izan den Javier Otxoa Arteaga hil zen beronegan, eta hori dela eta, Jai Batzordeak «tolosarrak eginko lana goraitu» nahi izan du. «Berari esker bain gurean diren inauteriko sexen enbolatuek eta sokamuturrak gehiago maitatzen ditugu. Gure jaiak kuttunenaren lehen xexoen otorez arkitu joan zaigu. Sendi guztiari doluminik zinezko enako», azaldu dute.



San Frantzisko kale oso hartu zuten Haur Danborradak. Kale alboetan jendetza hurbildu zen ikustera...



Helduen Danborradaren hasiera ikustean jende ugari izan zen Triangulo plazan...



Danborradariekin aurreko gogotsu ziren gaitzetako...



Tolosako hiruko kaleetako ehunka gaitzek hartu zuten parte...



Danborren dainura dantzan aritu ziren...



San Frantzisko igaro ostean Triangulo plazan bildu ziren denak...

"Jaiak guztiok...
...goazen festara
danak goizetik"

zer nahi duzu bihar!

www.kutxa.es kutxa



Urrezko ezteiak bete zituen atzo 1915. urtean Tolosako Arostegieta kalean jaiotako Juan Colmenero Otegi musikariak konposatutako abesti alai eta erakaragarriak.

Danborradako doinuak 50 urte

JOXEMI SAIZAR

Duela 50 urte konposatu zuen Juan Colmenero musikari tolosarrak Tolosako Danborradako doinua. Atzo gaueko Danborradan beraz, urrezko ezteiak bete zituen doinu alai eta erakargarri honek.

Juan Colmenero Otegi Tolosan jaio zen, Arostegieta kalean, 1915ean. Txikitatik azaldu zuen musikarako interesa eta zazpi urterekin hasi zen Feliciano Beobide Bandako zuzendariarekin musika ikasten. Bederatzi urterekin hasi zen tronpeta ikasten. Hamalau urterekin Tolosako Udal Musika

Colmenerok Inauteri pieza asko konposatu zituen, baita konpartsa batzuetarako doinuak ere

Bandan sartu zen eta urte askotan zehar bertako partaide izan zen, azken urteetan fliskormoa joaz. Musikari gisa talde askotan aritu zen, baina bereziki Beotibar orkestran, 60. hamarkadan oso ezaguna zena.

Konposatzaile bezala, Veleta-Aiz Orratz, Arco Iris-Ortzadar, Casino, Urdiña Txiki, Batasuna eta Ron Caliente (Txinparta elkarte-

ri eskainia) Inauteri piezak konposatu zituen. Konpartsa batzuetarako eta beste herri batzuetarako doinuak ere konposatu zituen. Eta 1960an, Tolosako Danborradarako doinua egin zuen. Urte batean bera izan zen Danborradako zuzendaria, Fernando Olazabal Otxito ordezkatuz gaixo zegoelako. 1976an Inauterizale berezia izendatu zuen. 1993an hil zen Ibaran, bizi zen herrian.

Festa hasierarako

«Aitak esaten zuen beti Inauteri festa hasierarako ez zegoela ezer eta horregatik egin zuen Danborradako martxa hau. Herriarentzat egin zuela esaten zuen. Pieza gogor samarra da jotzeko. Hasiera serio eta sendoa izatea nahi zuen», dio Jose Javier Colmenerok, konposatzailearen semea eta Musika Bandako klarinetejoleak. «Beti danborradarekin ari zen: Veletako bazkidea zen eta etxean aritzen zen danborrak konpontzen, gero entseguetan egoten zen», eranstzen du. Bere osaba Alejandro Colmenerok korneta jotzen zuela ere gogoratzen du. Honen ondoren Amador Ortiz aritu zen korneta jotzen Danborradan: «Ezagutzen ditudan danborradetako doinurik onena da, polita eta oso egokia dan-



Juan Colmenero Tolosan jaio zen eta 1993. urtean hil zen Ibaran, bizi zen herrian. HITZA

borrada baterako, ondo joz gero, noski», dio. Anekdotak bat ere badauka: «Urte batean Peña Rayoko lagunok sukaldariz jantzita atera

Inauteri festa hasierarako ezer ez zegoelako konposatu zuen Danborradako martxa

nahi izan genuen Danborradan eta ez ziguten utzi. Haserretu eta ez nintzen atera korneta gisa. Gero Ostegun Gizenekora pasatu nintzen, Aurrera elkartekoa». Gaur egun Musika Bandarekin batera ateratzen jarraitzen du.

Luis Mari Gartzia Artetxe Musika Bandako zuzendariari ere asko gustatzen zaio Juan Colmenero Bandako kideak konposatu-

tako obra eta danborrariei ikastea zenbat kostatu zitzaizen gogoratzen du: «Oraindik ikusten ari naiz Juanito entseguan, esku batekin zuzentzen eta bestearekin kolpe kopurua markatzen». «Martxa hori izan arte Donostiako piezak bakarrik jotzen ziren. Ondoren, Jose Antonio Ruiz-Bona zuzendariak Tolosakoak sartzen hasi zen: Pastelero, Iriyarena... Eta nik 14.a sartu nuen. Hemengo gauzak jarzteagatik, baina Donostiakoak utzi gabek», argitu du.

Beste kontu bat ere komentatu nahi du zuzendariak: «Donostian danborrak eta barrilak ateratzen dira eta horrek joko gehiago ematen du, erantzunak eta emateko. Hemen lehen ere barrilak ateratzen zituzten, baina azken urteotan ez. Ez dakit zergatik. Pena da,

dena berdin entzuten delako orain».

Carlos Muñoa Danborradako danbor nagusia da azken 12 urte-

1956. urtean ez zen Danborradaren burrunbarik entzun elurra egin zuelako

tan eta aurretik beste 25 urte egin zituen danbor txiki bezala. «Oso polita iruditzen zait Colmeneroren pieza. Ordu arte ez zegoen Tolosako piezarik eta gero pieza gehiago sartzen hasi ginen. Gustatzen zaigu herriko doinuak jotzea», dio. 1955ean Danborrada egiten hasi zenetik hona, Muñoarekin batera, zuzendari gisa urte gehienak aritu direnak Miguel Izagirre, Fernando Olazabal Otxito eta Jose Mari Tadeo izan dira.

Danborradaren bitxikeriak

Bitxikeria gisa, 1956an ez zen Danborrada atera, elurra egin zuelako. Musikari eta danborrariez gain, kosako dantzariak eta kantinerak ateratzen dira.

Aurten 50 urte bete dituen Jose Tarragonaren akordeoi taldea ere atera izan da batzuetan. Kanioia ere izan da batzuetan. Elkar-teek aurkeztutako erregina eta damak izan ziren 1956tik 2000 urtera, Udalak diruz ez laguntzea erabaki zuen arte. Orduan Gal-tzaundiren irudia jarri zuten karronaz eta beste euskal inauterietako eta mitologiako pertsonaiaik ere atera ziren Danborradan. Karroza elkar-teek egiten zuten txandaka, 1979. urtetik aurrera Ignacio Goikoetxeak diseinatutakoa erabiliz.

Azken urteotan Ostiral Meheko emakumeen danborrada Zaldunita Bezperakoan integratu da eta beste urteetan Herriko Danborradatik aparte ibiltzen ziren Guardia Inglesa eta Berazubik danborradak ere bertan integratuko dira aurtengoa.

AIXA
A H O L K U L A R I T Z A

**Nominak - Kontabilitateak
Zergak- Autonomoak**

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk • TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03 • Faxa.: 943 65 22 22
aixatolosa@euskalnet.net

ondo pasa inauteriak!

1924
ECEIZA
T O L O S A

TEILAK ETA ZIGARROTXOAK

PABLO GOROSABEL, 34
TEL.: 943 655161

SAN FRANTZISKO, 8
TEL.: 943 651916

posta elektronikoa: pasteceiza@euskalnet.net

INAUTERIAK ONDO PASA!

**ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR**

PAGOLA ERAIKUNTZAK, S.L.

Izaskun Bidea, 7 behea
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80

"Xirimiri"

Txokolategia

Errementalari kalea, 40
20400 Tolosa
Tel. 943 67 52 23

Gora inauteriak!

I. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa Olatz Etxeberriarentzat

Villabona » Gurea guztiz bete zen zazpi parte hartzaileen lanak ikusteko; bigarren edizio bat egingo dutela aurreratu dute.



Parte hartzaile guztiak taula gainean, sariak jasotzen. ESTI EZEIZA

ERREDAKZIOA

Ostiral gauean izan zen I. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa Villabonako Gurea Antzokian. Zazpi parte hartzaile aritu ziren nor baino nor bakarrizketa batean eta aretoa lepo bete zen ikusleez.

Jon Plazaola, Ione Gorostarzu, Porrotx, Xabi Barriola, Oskar Schwarz, Yon Martinez eta Olatz Etxeberria izan ziren parte hartzaileak. Sei gipuzkoar eta bizkaitar bakarra izan ziren taula gainean eta gipuzkoarren artean hiru berastegiarek hartu zuten parte: Barriola, Etxeberria eta Gorostarzu. Bakarrizketen tarreak girotzen

berri, Dj-a eta trikitia izan ziren. Lehen postua eta 800 euroko saria Olatz Etxeberriak eskuratu zuen. Jon Plazaola urretxuarra, aldiz, bigarren egin zuen eta 450 euroko saria jaso zuen eta publikoaren saria Ione Gorostarzuk poltsikoratu zuen eta baita 250 euro ere.

Aurkezle lanetan Anartz Iturbe

aritu zen eta sariak Hautsi Izagirre zinegotziak eta euskara teknikariak banatu zituzten. Euskara, mugimendua eta denbora baloratu zituzten.

Lehen lehiaketa honen arrakastak ikusita, bigarrena abian da dagoeneko eta udazken aldera izango dela jakinarazi zuten.

Inauteri giroa nagusi larunbateroko azokan

PABLO ALBERDI

Elurrarena bezala, atzoko azoka egunean Inauterien eragina ere sumatu zen. Izan ere, giro berezia nabari zen, bai koloreetan, bai eta kaleetako alaitasunean ere. Goizak aurrera egin ahala alaituz eta berotuz joan zen giroa, eta eguerdi aldera erosle dezente ikusi ahal izan zen. Eskaintza guztiz negukoa izan genuen. Barazki asko; azak,

azaloreak, bruselazak, romanesku azak, porruak, azenarioak, mota askotako babarrunak, letxugak eta eskarolak izan ziren nagusi.

Fruta zerrenda eskasa izan zen eta batez ere errezil sagarrez osatutakoa, eta gazta ugariarekin, bai berria, bai eta ondua ere. Datoren asteetan elurraren eraginaren ondorioak nabarituko ditugu, ziur, baserriko produktuetan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Xarbota	4,00	6,00
Ziklamena	5,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Onddoak potean	9,00	-
Kiwiwa	3,50	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Babarrun berria	12,00	13,00
Babarrun zuria	8,00	-

Barazkiak (unitatea)

Azalorea	1,00	1,25
----------	------	------

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Arraultzak	3,50	-
Intxaurra	4,00	6,00



Torturatuei babesa agertu diete

ALDARRIKAPENA » Atzo, Euskal Herriaren Torturaren Aurkako Eguna izan zen. Joxe Arregi zizurkildarra torturatu eta erail zutela 29 urte bete ziren. Hori dela eta, Zizurkilen, mendi ibilaldia, lore eskaintza, ekitaldia eta bazkaria egin zituzten. Bestetik, Tolosan elkarretaratzea egin zuten eta Leaburu-Txaramako eta Gazteluko ezker abertzaleak ere panpina torturatuak jarri zituen Leaburun. Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak, era berean, udalaren jarrera ere salatu zuten, besteren artean, «iaz sartutako torturaren aurkako mozioa ez baitzuen onartu». E. MAIZ-HITZA

Gizonezko bat atxilotu dute Asteasu eta Villabona artean

Atxiloteta » Atzo arratsaldeko hiru eta erdiak aldera atzeman zuten bizikletan zihoala; ETako kide izatea egotzen diote.

ERREDAKZIOA

Guardia Zibilak gizonezko bat atxilotu zuen atzo 15:30ak aldera Asteasu eta Villabona artean, bizikletan zihoala. Zenbait agentzia eta komunikabidek atxilotutako gizona Ibai Beobide bizkaitarra

dela zabaldu zuten. Antza ohiko kontrol bat jarrita zeukaten bi herrien arteko errepidean, eta nortasun agiri faltsuak eta pistola bat atzeman zizkioten. ETako kide izatea egotzen diote.

Atxilotu eta gero Donostiako erietxe batera eramane zuten, baina polizia iturriek ez ez zuten zehaztasun gehiagorik eman. Zenbait komunikabideren arabera, bere burua zauritzen saiatu zelako eraman zuten ospitalera; beste batzuk, berriz, azterketa soil bat egitera eraman zutela ziorten.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAX: 943 670719
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Inauteriak, gaurko egitaraua, Zaldunita

■ **Tolosa.** 08:00etan Diana, Tolosako Musika Bandarekin; 08:45ean herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginez Inauterietako Zortzikoa joko du; 10:00etan txarangen irteera; 10:30ean plaza Berrian sokamuturra; 11:00etan karroza eta konpartsen irteera; 15:45ean Udal Txistulari Bandak Ildiarena pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea; 16:00etan kalejira Txapel Haundi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin; 16:30ean Zezenak Zezen Plazan eta ondoren kalejira; 19:00etan dantzaldia Berdura Plazan Txapel Haundi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin; 23:30ean Incansables eta Oriako txarangak kalez kale.
Txosnagunea: 16:00etan irekiera eta 19:00etan Bonberenea txaranga.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.t
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

G Garraio Publikoa

» RENFE, GAUEKO ZERBITZUA

■ Irureko norabidean 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan (trenak ez dira Apeaderon gelditzen).

» TSST

23:00-04:00. Orduro.

■ ASTEASU - Zizurkil - Villabona - Irura - TOLOSA (Santa Klara)

23:30-04:30. Orduro.

■ TOLOSA (Santa Klara) - Anoeta - Irura - Villabona - Zizurkil - ASTEASU.

» TOLOSALDEA BUS

■ 00:00-02:00-03:30.

TOLOSA (Zumardi Txiki) - Amarotz - Ikaztegieta - Alegia - Amezketa - TOLOSA.

■ 01:00-02:45-04:15.

TOLOSA (Zumardi Txiki) - Amarotz - Ibarra - Berrobi - Elduain - BERASTEGI.

A Agurrak



Sugaar Zapirain Larrañaga.

Izar eder bat sortu da zeruan nahiz eta atzerrian jaioa izan argia egingo duena Euskal Herrian.

Zorionak Sugaar zure jaiotza egunaren partez, 2010eko otsailaren 6a. Zorionak aita Iñigo eta ama Agurtzane, Euskal Herriari seme bat emateagatik, ni armona eta losu osaba egiteagatik!




ZERBITZUAK

- Errotulazioa biniloan, zeharrargiak
- Formatu handiko inpresio digitalak
- Mota guztietako autoen errotulazioa
- Kamisetak, lanerako arropa
- Oihalak, olanak
- Eskaparateak, imanduaak • Kartelak, posterrak

Tel.: 943 11 78 87 - 696 60 28 33
San Frantzisko pasealekua, 28 behea
200400 Tolosa - Gipuzkoa
rotulan@euskalnet.net • www.rotulan.es



**Vinos y
Distribuciones
Villanueva, S.L.**

Okobio industrialdea, 47
BELAUNTZA (Gipuzkoa)
Tel./faxes: 943 671 127



Ukrainarrak ere festan murgilduta

Urteroko kontua izan zitekeen; kanpotarrak Zaldunita bezperan Tolosara mozorrotuta etorri direla. Baina argazkian daudenak tolosarrak dira, Ukrainatik etorritako tolosarrak. Badirudi oraindik ere bertako ohiturak barneratu behar dituztela, baina saiatu behintzat, saiatu dira, eta hori ere kontutan hartu beharreko zerbitu da. E.MAIZ



ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Inst. Elektriakoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..

Iurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb, 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

5008

Peugeot-eko 5+2 plaza duen monobolumena



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14 - A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

